

*2018ko azaroa*

Udazkenean turismoa dinamizatzeko asmoz, Leartibai Garapen Agentziak Lea Artibai Fest'18 egitasmoa antolatu zuen, jardunaldi ezberdinen bitartez bisitari zein eskualdeko bizilagunei inguruko ondarea eta gastronomia ezagutzeko aukera paregabea eskainiz. Egitasmoaren helburua bikoitza da: batetik, behe denboraldian turismoa sustatzea gure eskualdera jendea erakartzeko aukerak handituz, eta bestetik, ekimen desberdinak garatzea gastronomia eta kultura uztartuz.

Azaroaren 1etik 4rako zubian itsasoa eta lurra gai nagusi bezala hartuz, hainbat ekintza antolatu ziren.



Ondarroan egin zen alde zaharreko bisita gidatuarekin eman zitzaien hasiera Lea Artibai Fest'18 jardunaldiei. Bisitaren ostean, bertaratuek Sutargi Jatetxean herriko gastronomia dastatzeko aukera izan zuten. Ibon Basterretxeak, ostalariak, zuzendutako dastatze komentatuarekin eskualdean ditugun produktuak ezagutzeko aukera izan zuten eta Txakolinaren eskaintza osatzeko, bi pintxo desberdin eskaini zituen, hegaluze mendrezka eta sasoiko txipiroiak.

Hurrengo egunean Markina-Xemeinen, familia ginkana bat antolatu zen. Herriko ondare esanguratsuenak bisitatzeaz gain, eskualdeko gaztagile desberdinen produktuak dastatu zituzten. Behin ekintza bukatuta, parte hartzaileak Antsotegi hotelera hurbildu ziren eta bertan, gazta, gozoak, txakolina, zukuak... dastatzeko aukera izan zuten. Produktuen dastaketa hasi aurretik, Gontzal Hernandok Antsotegi hotelak urteen bilakaeran jasan dituen aldaketak azaldu zituen.

Azaroaren 3an, goizez, Marierrota interpretazio zentroa bisitatu eta taloak egiteko aukera egon zen. Arratsaldean, berriz, Lekeitioko Itsasargira bisita eta dastatze komentatua eskaini zituen Jon Bixentek, enologoak, marinelen bizipenak ezagutzeko aukera paregabea eduki zutelarik. Amaitzeko, Igandean Lekeitioko hiribilduko bisita ospatu zen, beste batzuen artean, alde

zaharra eta Sosoaga dolarea ezagutzeko aukera izan zuten bisitariek. Ondoren, Mikel Garaizabalen, enologoaren, eskutik dastatze komentatua eskaini zen Silken Uribarren Jauregian, oraintsu berriztatu duten hotela.

Laburbilduz, Lea Artibai Fest'18 ekimena arrakastatsua izan da, parte hartzaileek batz besteko 8-10 bitarteko puntuazioa eman diote ekintzei. Euren ikuspuntutik, umeen eta gurasoen arteko komunikazioa hobetzeko eta eskualdeko produktuak dastatzeko aukera paregabea izan da. Bestalde, ekintza ezberdinetan parte hartu duen jendeak harrera oso ona izan du eta antzeko egitasmo gehiago antolatzeko beharra adierazi dute. Jatorriari dagokionez, Durango, Gasteiz eta Bilbokoak izan ziren bisitari gehienak. Horietako batzuk gainera, asteburuari probetxua ateratzeko gure eskualdean lotan gelditu ziren.